

2018KO MAIATZAREN 22AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA	ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 22 DE MAYO DE 2018
--	--

<u>LEHENDAKARI ERAGINKORRA</u>	<u>PRESIDENTE EFECTIVO</u>
--------------------------------	----------------------------

P.N.V. – E.A.J. GONZALEZ PEREZ, Alvaro Jn.

<u>BERTARATUTAKO BOKALAK</u>	<u>VOCALES ASISTENTES</u>
------------------------------	---------------------------

P.N.V. – E.A.J.	AGIRRE MUNOA, Amaia and.
GUK GETXO	AMIEVA CLEMENTE, Paula and.
GUK GETXO	ANDOLLO GONZALEZ, Susana
EH BILDU	ARRAIZA ARAMENDIA, Maite
P.N.V. – E.A.J.	ARREGI MARTINEZ, Joseba Jn.
P.N.V. – E.A.J.	CORIA YANGUAS, Elena and.
P.P.	COS YAÑEZ, Susana de and.
EH BILDU	GUIJARRUBIA GARCIA, Nerea and.
P.P.	IBABE BOTELLA, Miguel Jn.
P.N.V. – E.A.J.	ITURBE MENDILIBAR, Koldo Jn.
EH – BILDU	ITURRALDE FERNANDEZ, Oier Jn.
P.S.E./EE	LANDA ARTECHE, José Luis Jn.
GUK GETXO	OLASO GARCIA, Enrique Jn.
CIUDADANOS	SAINZ ROBLES, Santiago Jn.
P.N.V. – E.A.J.	URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio Jn.

<u>BEHIN-BEHINEKO GERENTEA</u>	<u>GERENTE ACCIDENTAL</u>
--------------------------------	---------------------------

MIÑAMBRES AMEZAGA, Aitor Jn.

<u>GONBIDATUTAKO LANGILE TEKNIKOAK</u>	<u>INVITADOS PERSONAL TÉCNICO</u>
--	-----------------------------------

ZABALA LASA, Gorka Jn.

<u>AZTERGAIEN ZERRENDA</u>	<u>ORDEN DEL DIA</u>
-2018ko apirilaren 17ko ohiko bilera akta onartzea, hala badagokio	-Aprobación si procede, del acta del Consejo Rector Ordinario de fecha 17/04/2018
-2018ko apirilaren 27ko ezohiko bilera akta onartzea, hala badagokio	-Aprobación si procede, del acta del Consejo Rector Extraordinario de fecha 27/04/2018
-2017. urteko Getxo Kirolakeko kontu orokorraren irizpena	-Dictamen de la Cuenta General de Getxo Kirolak correspondiente al año 2017.
-Getxo Igeriketa Bolue Kirol Ekarteak emandako sorospen zerbitzuari dagozkion apirilako faktura onarpenaren proposamena	-Propuesta de aprobación de la factura correspondiente al servicio de socorrismo prestado durante el mes de abril por el Getxo Igeriketa bolue Kirol Elkarte
-Informazio orokorra	-Información general
-Galde-eskeak	-Ruegos y preguntas

Getxon, 2018ko maiatzaren 22an, arratsaldeko 17:00ean, ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea, Santa Clara ko Batzar Aretoan (Getxoko Udaletxea), goian aipatutako pertsonak batu direlarik.

En Getxo, a las 17:00 horas del día 22 de mayo de 2018 se reúne en sesión ordinaria, en la Sala de Comisiones de Santa Clara (Ayuntamiento de Getxo), el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

## SARRERA

Lehendakaria: *Gai-zerrendarekin* hasi baino lehen, azaldu nahi dizuet, ikusiko duzuen moduan, *Aurrekontuen Proiektua Onartzeko Proposamena* hor ez dagoela, deialdian akats bat eduki dugulako; beraz, Ezohiko eta premiazko Zuzendaritza Batzordea deituko dugu bihar, arratsaldeko 15:45erako.

Dokumentazioa bidaliko dizuegu, ahal badugu, gaur arratsaldean, edo bihar bertan goizean. Hala ere, uste dut hori baduzuela, Informazio Batzorderako banatu zelako.

Kudeatzaile titularrik gabe lan egitea ez da erraza.

Besterik gabe, barkatzeko eskatu nahi dizuet, eta jakinarazi bihar egingo dugula, gainerako batzordeak hasi baino lehen.

125.- 2018 APIRILAREN 17KO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

AHO BATEZ onartu dute bertaratutakoek 2018/04/17ko akta.

126.- 2018 APIRILAREN 27KO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

AHO BATEZ onartu dute bertaratutakoek 2018/04/27ko akta.

127.- 2017. URTEKO GETXO KIROLAKEKO KONTU OROKORRAREN TXOSTENA

Lehendakaria: norbaitek zerbaite esan nahi badu.

Puntu hau bozkatu egin behar da Osoko Bilkurara eramateko.

Paula Amieva: Baina hurrengoa da, ezta?

Lehendakaria: Zein? Barkatu

Paula Amieva: Osoko Bilkurara eraman behar dela esaten ari zara.

Lehendakaria: Bai, txostena Osoko Bilkurara eraman behar da.

Paula Amieva: Ez dator Onartzeko Proposamena bezala.

Lehendakaria: Barkatu?

Paula Amieva: Hau berri ematea da, ezta?

Emakumea: Egoitzan ere bozkatu genuen... aurrekoetan.

Lehendakaria: Nik diot Beste Kontseiluetan egin dugunarengatik.

## INTRODUCCIÓN

Presidente: Antes de comenzar el *Orden del Día*, debo informaros de que, como veréis, no está la *Propuesta de Aprobación de Proyecto de Presupuestos*, porque hemos tenido un error en la convocatoria, por lo que, vamos a convocar un Consejo Rector Extraordinario, urgente, mañana a las 15:45 hora.

Os enviaremos la documentación, si podemos, hoy a la tarde, o mañana mismo a la mañana. Creo de todas maneras que ya disponéis de ella, porque se entregó para la Comisión Informativa.

Esto de convivir sin gerente titular no es fácil.

Sin más, pediros disculpas, e informaros de que vamos a hacerlo mañana, antes del inicio del resto de comisiones.

125.- APROBACION SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR ORDINARIO DE FECHA 17/04/2018

Se aprueba por UNANIMIDAD de las personas presentes el acta del día 17/04/2018.

126.- APROBACION SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR EXTRAORDINARIO DE FECHA 27/04/2018

Se aprueba por UNANIMIDAD de las personas presentes el acta del día 27/04/2018.

127.- DICTAMEN DE LA CUENTA GENERAL DE GETXO KIROLAK CORRESPONDIENTE AL AÑO 2017

Presidente: Si hay alguna cuestión...

Este punto hay que votarlo porque es su elevación a Pleno.

Paula Amieva: Pero es la siguiente ¿no?

Presidente: ¿Cuál, perdona?

Paula Amieva: ¿Estás diciendo que hay que elevarlo?

Presidente: El dictamen hay que elevarlo a Pleno.

Paula Amieva: No viene como Propuesta de Aprobación.

Presidente: ¿Perdona?

Paula Amieva: Esto es dación de cuenta, ¿no?

Mujer: En la residencia también lo votamos.. en las anteriores

Presidente: Yo lo digo por lo que hemos hecho en otros Consejos.

Paula Amieva: Baina ez dator Osoko Bilkurara eraman beharrekoa bezala.

Emakumea: Bai, baina... Zurean ez. Kultur Etxean eta Musika Eskolan ez.

Paula Amieva: Jakina, baina erabaki-proposamena bezala ez badator, guretzat horren berri ematea besterik ez da.

Emakumea: Ez, baina Osoko Bilkurara eraman behar da, horregatik. Eta guk ere bai.

Lehendakaria: Niri esaten didazuena.

Ignacio Uriarte: Nik bihar entregatuko dut, baina ez da bozkatuko.. Kontu Orokorra.

Lehendakaria: Beno, ba horren berri eman dut.

128.- GETXO IGERIKETA BOLUE KIROL ELKARTEAK EMANDAKO SOROSPEN ZERBITZUARI DAGOZKION APIRILAKO FAKTURA ONARPENAREN PROPOSAMENA

Lehendakaria: Zerbait esateko baduzue... Nire ustez, beharrezko txosten guztiak hor daude, eta galderarik ez badago, puntu hau bozkatuko dugu:

Alde.....	6 (EAJ/PNV)
Abstentzioak.....	10 (PSE/EE - PP - EH Bildu - GUK Getxo C's)

Puntua ONARTUTA geratu da.

#### INFORMAZIO OROKORRA

#### KUDEATZAILEAREN POSTUAREN PROZESUA

Lehendakaria: Lehenik eta behin, kudeatzailetza-prozesuari dagokionean, esanaldi baterako eten egin dugula, Oinarrien aurrean bi errekurso aurkeztu direlako: bat Guk Getxok eta bestea ELA-STV. Eta Zerbitzu Juridikoak etetea gomendatu du, epaitegiek dagokionaren irizpena eman bitarte. Langileengan eragina duen kontua denez, badirudi ez dakit zer eskatzea badagoela... "Larrialdia" uste dut, edo ez dakit nola deitzen zaion, eta badirudi izapide hori jarraituko dela.

#### EKITALDIEN KUDEAKETARI BURUZKO TXOSTENA

Bestalde, baita ere jakinarazi bihar bidaliko dizuegula Ekitaldien Kudeaketari buruzko Txostena. Agiri berria da, eta hiru hilabetetik behin aterako da. Posta elektronikoz bidaliko dizuegu, orri asko baitira, argazkiak eta antzekoak, eta inprimatzen ez ibiltzeagatik.

Enrique Olaso: Ekitaldien Kudeaketari buruzko Txostena?

Lehendakaria: Ekitaldien Kudeaketari buruzko Txostena: udalerrian egin diren ekitaldiak, Kirol arloan, urtarrilean, otsailean eta martxoan.

Paula Amieva: Es que no viene como elevación a Pleno.

Mujer: Si, pero... En la tuya no.. En la Kultur Etxea y Musika Eskola no.

Paula Amieva: Claro, pero es que si no viene como propuesta de acuerdo, nosotros entendemos que es una dación de cuenta.

Mujer: No, pero es elevar a Pleno, por eso... Y nosotros también.

Presidente: A mi lo que me digáis.

Ignacio Uriarte: Yo mañana lo entrego, pero no se vota .. la Cuenta General.

Presidente: Pues doy cuenta de ella.

128.- PROPUESTA DE APROBACION DE LA FACTURA CORRESPONDIENTE AL SERVICIO DE SOCORRISMO PRESTADO DURANTE EL MES DE ABRIL POR EL GETXO IGERIKETA BOLUE KIROL ELKARTEA

Presidente: Si tenéis alguna cuestión... Creo que están todos los informes necesarios y si no han ninguna pregunta se somete a votación el presente punto:

A favor.....	6 (EAJ/PNV)
Abstenciones.....	10 (PSE/EE - PP - EH Bildu - GUK Getxo C's)

Este punto queda APROBADO.

#### INFORMACION GENERAL

#### PROCESO PUESTO GERENTE

Presidente: En primer lugar, debo informaros que hablando de proceso de gerencia lo hemos suspendido temporalmente, porque ha habido dos recursos a las Bases: uno de Guk Getxo, y otro por parte de ELA-STV. Y el Servicio Jurídico ha recomendado su suspensión, hasta que los tribunales dictaminen lo que corresponda. Como es una cuestión que afecta al personal, parece que se puede solicitar no sé qué... creo que la 'urgencia', o no sé cómo se llama la historia y parece que ese es el trámite que se va a seguir.

#### INFORME GESTION EVENTOS

Por otra parte, también debo informaros de que mañana os mandaremos el Informe de Gestión de Eventos, que es un documento nuevo que vamos a comenzar a emitir de forma trimestral. Os lo enviamos por correo electrónico, porque como es un montón de hojas, con fotos y tal, pues para no andar imprimiendo.

Enrique Olaso: ¿Informe de Gestión de Eventos?

Presidente: Informe de Gestión de Eventos: los eventos que ha habido en el municipio, por parte de Deportes, de enero, febrero y marzo.

Enrique Olaso: Historiko baten antzekoa da.

Lehendakaria: Bai, txosten txiki bat da, egindako ekitaldi guztiak jasotzen dituena, parte hartu dutenen kopurua,...

Enrique Olaso: Memoria bat.

Lehendakaria: Bai, memoria antzeko bat, Kalitate Memoriarekin egiten dugun bezala, baina oraingoan ekitaldiekin.

Eta ez dut inolako galde-eskerik idatziz. Bakarren batek zerbait egin nahi badu...

#### GALDERA ETA ESKAERAK

Nerea Guijarrubia: Bai... Nik gauza bat... zalantza bat.

Esan duzue egingo duzuela biharko [...] Kontseilua... Baina 72 ordu lehenago bidali behar da deialdia, ezta? Oker ez banago, 13. artikuluan horrela jasotzen da.

Lehendakaria: *Estatutuen* arabera, ezohiko deialdia egin daiteke 72 aurretik edota ezohiko eta premiazko deialdia, nik biharko proposatuko dudana.

Orduan, larrialdia Kontseilu Errektorean bertan bozkatuko dugu.

Nerea Guijarrubia: Barkatu... eta hori nola azaltzen da

Lehendakaria: Aurreko Kontseilu Errektorean, apirilaren 27an, aurkeztutako Txostena berriro aipatuko dut; Ezohiko eta Premiazko Kontseilu Errektorea izan zen. Txosten juridiko bat gehitu zen, Getxo Kirolak Estatutuetan zerbait jasotzen ez denean, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen bitartez Osoko Bilkuren deialdia egin daiteke ezohiko eta larrialdi moduan, betiere Osoko Bilkurak horren larrialdia bozkatzen badu.

Nahi baduzue, bihar bertan gehituko du Txostena. Ez dago inolako arazorik.

Paula Amieva: Guri gustatuko litzaiguke txostena eta justifikazioa izatea.

Lehendakaria: Baina txostena baduzue. Banatu zitzaizuen.

Paula Amieva: Bai, baina hau idatzi bat da; alegia, ez da apirillean gertatutako gauza bera, negoziazioa eta gainerakoak atera ziren orduan, egunetara moldatu beharra zegoen, kontratua amaitzen zen-eta.

Dena barne-kudeaketako kontua izan da.

Lehendakaria: Bai, honetaz arduratzeko pertsonarik ez zegoelako gertatu da.

Enrique Olaso: Es como un... historiko bat.

Presidente: Sí, es un pequeño informe, con todos los eventos que se han realizado, número de personas que han participado...

Enrique Olaso: Memoria bat.

Presidente: Sí, una especie de memoria, igual que hacemos con la Memoria de Calidad, pues un poco con los eventos.

Y no tengo ningún ruego ni ninguna pregunta por escrito. No sé si hay alguna...

#### RUEGOS Y PREGUNTAS

Nerea Guijarrubia: Sí... Yo una cosa... una duda.

Habéis dicho que lo haréis mañana [...] el Consejo... Pero la convocatoria se tiene que enviar con 72 horas de antelación ¿no? Si no estoy equivocada, así se recoge en el artículo 13.

Presidente: Los *Estatutos* posibilitan la convocatoria extraordinaria 72 horas antes, o una convocatoria extraordinaria y urgente, que es la que voy a proponer yo para mañana.

Entonces, la urgencia la votaremos en el propio Consejo Rector.

Nerea Guijarrubia: ¿Perdón... y eso cómo se explica [...]?

Presidente: Vuelvo a hacer referencia al Informe que se presentó en el anterior Consejo Rector, del 27 de abril, que fue un Consejo Rector Extraordinario y Urgente, se adjuntó un informe jurídico, donde, cuando algo no se contempla en los Estatutos de Getxo Kirolak, se hace referencia a la Ley de Bases de Régimen Local donde se posibilita la convocatoria de Plenos de forma urgente y extraordinaria, siempre que el Pleno vote la urgencia del mismo.

Si queréis, adjunto el Informe mañana mismo también. No hay ningún problema.

Paula Amieva: Por nuestra parte, sí que nos gustaría tener el informe y la justificación.

Presidente: Pero el informe lo tenéis. Se entregó.

Paula Amieva: Ya, ya... pero es que esto es un escrito. O sea, no es como lo que ocurrió en abril, que fue una cuestión de cuando acabó saliendo la negociación y demás, cuando te ajustas a las fechas, porque terminaba un contrato.

Es que esto ha sido una cuestión de gestión interna.

Presidente: Sí, ha sido un despiste de la falta de personas que se encarguen de esto.

Enrique Olaso: Baina Estatutoetan agertzen da epealdi bat?

Lehendakaria: *Estatutuetan* ezohiko bilkurak deitzeko epea agertzen da. Zerbait *Estatutuetan* agertzen ez bada, *Estatutuetan* ere esaten da, *Toki Araubideko Oinarrien Legea* jo beharko dela; hots, alkateak Udalean dituen eskumen beretara. Beraz, Alkateak ezohiko eta premiazko Bilkurak dei ditzake. Eta larrialdia Kontseilu Errektorean bertan bozkatzeko da, edo horretarako deitutako Osoko Bilkuran bertan. Beraz, bihar, ezohiko Kontseilu Errektorea deituko dugu 15:45erako, gainerako Batzordeak hasi baino lehenago. Larrialdia Kontseilu Errektorean bertan bozkatzeko proposatuko dugu, eta *2018ko Aurrekontuen Proiektua Onartzeko Puntua* proposatuko dugu. Hori izango da *Gai-zerrenda*.

Halaber, hemen deialdia aurreratzen dizuet, aktan ere jasota gero dadin, nahiz eta bihar dagokion dokumentazio guztia bidaliko dizuedan.

Aurreko txosten bera gehituko dut.

Paula Amieva: Galdera bat: *Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legea*, zenbat ordu lehenago...?

Lehendakaria: Ezohiko eta Premiazko Bilkurak ez du inolako aurrerapen ordurik behar. Ordu batetik bestera egin daiteke deialdia. Hau da, ez du ezartzen...

Paula Amieva: Eta Informazio Batzordeetarako eta Zuzendaritza Batzordeetarako gauza bera da?

Lehendakaria: Ez. Kontseilu Errektorea Osoko Bilkuraren gauza bera da.

Paula Amieva: Ados.

Enrique Olaso: Bakarrik konstatatzeko persona batzuk lan egiten dugu hemendik kanpo, eta zailtasunak ditugu gure agenda moldatzeko. Kurso hasieran ematen zaizkigu egutegi batzuk, eta ordutegiak egunean zehar, ba, eskertzen dugu mantentzea. Es que honekin iruditzen zait zailtasun pilo bat eta gero eta gehiago.

Nik uste dut behar dela nolabaiteko gauzak aurreikusi, planifikatu eta denboraz abisatu. Es que, bestela, zoratu egiten gara politikan profesionalak ez garenak.

Lehendakaria: Nik uste dut beste Kontseilu Errektoreetan jada esan dudala.

Hemen nahitaez egon behar duen pertsona bakarra gizon hau da, behin-behineko kudeatzailea. Eta Kontseilu Errektorean parte hartzeko gizon honek duen azken ordua arratsaldeko bostak dira, beste betebeharrak ere badituelako, ezinbestekoak haiek ere, hau bezala. Orduan, beste batzuetan lauetan jarri dugu, tarte emateagatik, baina bostetan jarriko da, ordu horretan bakarrik baita

Enrique Olaso: Pero ¿en los Estatutos aparece un plazo?

Presidente: En los *Estatutos* aparece el plazo para la convocatoria de sesiones extraordinarias. En el caso de que algo no aparezca en los *Estatutos*... también lo dicen en los *Estatutos*... habrá que hacer referencia a la *Ley de Bases de Régimen Local*. Es decir, a las mismas competencias que tiene el alcalde en el Ayuntamiento. Entonces, el Alcalde tiene la posibilidad de convocar Plenos urgentes y extraordinarios. Y la urgencia se vota en el propio Consejo Rector, o en el propio Pleno que se convoca al efecto. Entonces, mañana convocaremos un Consejo Rector Extraordinario para las 15:45 horas, que es antes de que comiencen el resto de Comisiones, propondremos votación de la urgencia en el mismo Consejo Rector, y propondremos el *Punto de Aprobación del Proyecto de Presupuestos de 2018*. Ese será el *Orden del Día*.

Y también os adelanto aquí la convocatoria, para que conste también en el acta, en cualquier caso, aunque mañana os envíe toda la documentación correspondiente.

Voy a adjuntar el mismo informe que la otra ocasión.

Paula Amieva: Una pregunta: ¿la *Ley de Base de Régimen Local*, cuántas horas de anticipación...?

Presidente: El Pleno Urgente y Extraordinario no necesita ninguna hora de anticipación. Se puede convocar de una hora para otra. O sea, no establece...

Paula Amieva: ¿Y para las Comisiones Informativas y Juntas Rectoras es lo mismo?

Presidente: No. Consejo Rector es lo mismo que Pleno.

Paula Amieva: Vale.

Enrique Olaso: Solamente para constatar que algunas personas trabajamos fuera de aquí, y tenemos dificultades para adecuar nuestra agenda. A principio de curso se nos dan unos horarios y agradecemos que se mantengan los horarios a lo largo de los días. Es que con esto me parece un montón de dificultades y cada vez más.

Yo creo que es necesario prever algunas cosas, planificar y avisar con tiempo. Es que si no, nos volvemos locos los que no somos profesionales de la política.

Presidente: Yo creo que lo he dicho ya en otros Consejos Rectores.

La única persona que obligatoriamente tiene que estar aquí es este señor, que es un gerente accidental. Y la hora límite de este señor para participar en un Consejo Rector son las cinco de la tarde, porque tiene otras obligaciones, igualmente inexcusables, como esta. Entonces, otras veces hemos puesto a las cuatro, porque da margen, y se pone a las cinco porque es la



posible.

Nik hori guztia badakit. Gainera, horretaz ari naiz zurekin pertsonalki behin baino gehiagotan. Baina oraintxe bertan gertatzen ari da Getxo Kirolak behin-behineko kudeatzailearen lana egin dezakeen pertsona bakarra dela. Kudeatzaileakoa. Ez diot ezta "behin-behinekoa" ere deituko.

Enrique Olaso: Bai, baina biharko konbocatoria berriro jartzen duzue ordua baino lehen. Berriro... Aipatu duzu 15:45...

Beste gairik gabe, saioari amaiera eman zaio akta honetako goiburuan aipaturiko eguneko 17:12an.



Lehendakaria / El Presidente

única hora posible.

Yo soy consciente de todo eso. Y además lo he hablado personalmente contigo en varias ocasiones. Pero ahora mismo la situación que tenemos es que es la única persona que puede desarrollar la labor de gerente accidental en Getxo Kirolak. De gerencia. No voy a llamarlo ni 'accidental'.

Enrique Olaso: Sí, pero la convocatoria de mañana la ponéis de nuevo una hora antes. De nuevo.... Has dicho 15:45...

Presidente: Si no hay ninguna cuestión más, se levanta la sesión a las 17:12 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.



Behin-behineko gerentea / Gerente accidental